

EMAKUMEEN ERAKUNDEAK INDARTZEN DITUZTEN
METODOLOGIA FEMINISTAK SISTEMATIZATZEKO PROZESUA

BIZKAIKO MILITANTZIA FEMINISTARI BEGIRA



Argitalpenaren egiletza eta koordinazioa: InteRed Euskal Herria

Edizioa: InteRed Euskal Herria

Ilustrazioak: Bea Aparicio

Diseinua eta maketazioa: Iker Domínguez

Data: noviembre de 2024

Argitalpen hau “Bizkaiko Militantzia Feministari Begira” proiektuaren parte da, eta Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusiak finantzatzen du, Gizon eta Emakumeen Berdintasunaren arloko Proiektu Eraldatzaileetarako deialdiaren esparruan.

Argitalpen honen edukia InteReden ardurapekoa baino ez da.

Lan hau kopiatu, banatu eta jendaurrean jakinarazi ahal izango da, betiere, bere egiletza aitortzen bada eta helburu komertzialetarako erabiltzen ez bada.



INDICE

AURKEZPENA		04
-------------------	-------	-----------

METODOLOGIAK		07
---------------------	-------	-----------

SAIOEN SISTEMATIZAZIOA

1. ATALA: ERAKUNDEAK INDARTZEA		09
---------------------------------------	-------	-----------

2. ATALA: ZIBERFEMINISMOAK: GAUR EGUNGO TRESNAK ETA EZTABAIDAK		16
---	-------	-----------

3. ATALA: FEMINISMO ANITZAK		22
------------------------------------	-------	-----------

4. ATALA: ELKARREN ARTEKO ZAINKETA ETA KOLEKTIBOA		29
--	-------	-----------

SAIOAK HASTEKO ETA AMAITZEKO DINAMIKAK		35
---	-------	-----------

ONDORIOAK		37
------------------	-------	-----------

AURKEZPENA

Bizkaiko Militantzia Feministari Begira proiektuak honako hauxe dauka helburu: Bizkaiko talde feministen **premiak, indarrak eta ahalmenak** mapatzea, “Emakumeak Eraldatzen” prestakuntza-prozesua sistematizatzea eta lurralde historikoko militantzia feministaren premiaren zein garrantziaren inguruan kontzientziatzea.

Helburua zehazteko orduan, honako galdera hau egin diogu geure buruari, eta erakunde parte-hartzaileei bota diegu: **zertarako egin nahi dugu sistematizazio hau?**

Indartzeko prozesuak giza taldeei nahiz erakundeei eskaini dizkien elementu sustatzaileak zein diren azaldu eta sistematizaziorako bi helburu nagusi zehaztu ditugu:


- 1.** *Emakumeen erakundeak indartzeko esperientzia kolektiboak jakitera ematea, mobilizazio soziala, eragin politikoa eta erakundeen zein taldeen autonomiaren sustapena batzen dituzten jakitateak nahiz jarduketak kontuan hartuta.*
- 2.** *Modu kolektiboan sortutako material didaktikoa eskaintzea, erakunde parte-hartzaileek eta beste batzuek erakunde nahiz talde feministak indartzeko zenbait metodologia eskuragarri eduki ditzaten.*

Helburua zehaztutakoan, sistematizazioa bera mugatu nahi izan dugu taldeentzat (barrurantz nahiz kanporantz) eta bertako kideentzat banan-

banan adierazgarrienak diren une eta gaietara. Faktore horri erreparatzean, sistematizazioaren alderdi nagusiak eta ardatza zein diren zehaztu dugu. Hau da, honako hauexek dira (guk geuk eta parte-hartzaileek) sistematizatu nahi ditugun alderdi nagusiak eta gure sistematizazioaren helburuari erantzuna eman ahal diotenak:

-  *Sareak sortzeko, erakundea bera indartzeko eta eragina edukitzeko orduan erakundeek dituzten premiak zein diren zehaztea.*
-  *Prozesuaren berri ematea, beste erakunde eta giza talde batzuek aurkeztutako metodologiak erabiltzeko aukera izan dezaten eta, horrela, efektu biderkatzailea sortu dadin.*

ZEIN DEN GURE ABIAPUNTUA



ZER SISTEMATIZATU NAHI DUGUN

GAIAK ZEHAZTEA

Bizkaiko Foru Aldundiko Berdintasunerako Zuzendaritzaren laguntzaz, koaderno hau sortu dugu, InteRed Euskal Herriak eta Emakumeak Eraldatzen - Emakumeen Erakundeak eta Talde Feminista Autonomoak Indartzeko Prozesuan parte hartu duten erakundeek bederatzi hilabetean partekatutako ibilbidea sistematizatu nahi izan dutelako. **Indartze-ko prozesu horrek “Emakumeak Eraldatzen” du izena, eta InteRed Fundazioko “Berdintasunaren Unea da” kanpaina instituzionalaren barruan dago kokatuta.** Izan ere, indarkeria matxistak prebenitzea dauka helburu, eta, horretarako, hezkidetzak darabil zenbait giza talde eta biztanle-sektoreekin. Euskal Herriko Ordezkaritzaren kasuan, emakumeen erakundeak kanpainako subjektu protagonista izatea erabaki zen. Horrela, Lankidetzaren Euskal Agentziaren eta Bizkaiko Foru Aldundiko Lankidetzaren Zuzendaritzaren finantzaketa publikoaren bidez, prestakuntza-prozesua egiten hasi ginen emakumeen erakundeekin. Abiapuntu horren ondorioz, erakunde parte-hartzaileak indartzeko prozesu kolektiboa sortu zen, eta koaderno honetan bildu eta sistematizatu dugu.

Prozesuari hasiera eman baino lehen, bide bateratua zehaztu eta erakundeen nahiz erakunde bakoitzean parte hartzen duten emakumeen esperientzien eta ibilbideen aniztasuna jarri genuen erdigunean. Gaiak jorratzeko orduan, arrazakeriaren aurkako eta elkargunetzako ikuspegi feminista hartu dugu kontuan, eta banan-banan, harreman-mailan eta taldean landu ditugu, teoriatik praktikara. Horretarako, **herri-hezkuntzako eta taldeen bidelaguntzako partaidetzazko metodologiak** erabili ditugu, egitura hierarkikoak hautsi eta eguneroko ikaskuntza-jarduketak eraldatzen dituzten ikuspegiak kontuan hartuta.

Prozesu kolektiboa da, eta, eratzeko orduan, zainketa, horizontaltasuna zein konfiantza izan ditugu oinarri. Topaketa bakoitza bakarra izan da, eta parte-hartzaileen banakako eta taldekako prozesuetan geure harri-koskorra ekartzeko aukera eman digu. Eremu horiek erakunde parte-hartzaileekin batera eratu ditugu: Zutitzen, Warmipura, Bizitu eta MUMAMI. Eremuok InteRed Euskal Herriko taldeak dinamizatu ditu, eta honako hauexen kanpoko laguntza espezializatua jaso du horretarako: **Cony Carranza, Celeste Agüero, Emilia Larrondo eta Sara Álvarez Medrano.**

Koaderno honetako edukietan, honako hauexek eratutako eztabaidak, eraikuntzak eta proposamen politiko zein pedagogikoak azaltzen dira: eremu feministak, arrazakeriaren aurkakoak, giza eskubideak iparraldeko eta hegoalde globaleko zenbait geografiatatik defendatzeko eremuak eta zenbait kide nahiz maistra. Era askotako ideiak, eztabaidak, topaketak, ikasbide teorikoak eta herri-ikasbideak berreskuratu ditugu. Ideia horiek, gainera, gaur egungo eztabaidagai dira zenbait latitude-tan, eta apurka-apurka eraldatu gaituzten nahaspiletan, solasaldietan eta partekatutako irakurketetan sortu dira.

METODOLOGIAK

HERRI-HEZKUNTZA FEMINISTA

Herri-hezkuntza feminista (HHF) erakundeak eta giza taldeak eratzeko eta indartzeko ikuspegiaren funtsezko elementuen garapenerako oinarria da. HHF norberaren esperientzietan oinarritzen da, eta, bertatik, gainerakoen bizitzekin nahiz errealitateekin bat egiten du. Modu zabala-goan, Kimberlé Williams Crenshaw pentsalari eta aktibista afrofeministak dioenez, “horren ondorioz, norberagandik abiatu beharra dago, taldean ditugun bizitzak politizatze eta lehen isolatutako eta banakako zerbait zena orain soziala eta sistemikoa dela aitortzeko”¹. Herri-hezkuntza feminista (HHF) erakundeak eta giza taldeak eratzeko eta indartzeko ikuspegiaren funtsezko elementuen garapenerako oinarria da. HHF norberaren esperientzietan oinarritzen da, eta, bertatik, gainerakoen bizitzekin nahiz errealitateekin bat egiten du. Modu zabala-goan, Kimberlé Williams Crenshaw pentsalari eta aktibista afrofeministak dioenez.

Alde horretatik, **Emakumeak Eraldatzen** prozesuan ezarritako metodologiaren ardatz nagusitzat hartzen dugun HHFren aldeko apustua egitea oso erabilgarria da, eremu eta erakunde feministak eratzen eta indartzen laguntzen duten funtsezko elementuak garatzeko orduan. Elementu horiek honako hauexek dira, besteak beste: kontzientzia kritikoa, lidergo partekatua, boterearen azterketa, aliantzen eraketa eta estrategien garapena.



¹ Crenshaw, Kimberle (1991). «Mapping the Margins: Intersectionality, Identity Politics, and Violence against Women of Color».

TALDEEN BIDELAGUNTZA

Bere xede nagusia indartzea dela kontuan hartuta, **Emakumeak Eraldatzen** prozesuak funtsezko bi alderditan lagundu nahi izan die erakunde eta giza talde parte-hartzaileei. Lehenengo eta behin, taldeen bidelaguntzako partaidetzazko metodologiaren bitartez, zer ahulezia eta indar dituzten antzematen lagundu die. Bestetik, behar besteko tresnak eskaintzea ere izan du helburu, erakundeak sendotzeko, elkarbizitzarako nahiz aktibismoarako ingurune osasuntsuen eraketa sustatzeko eta, horrela, partekatutako lidergo-eredu kontzienteak bultzatzeko.

Taldeen bidelaguntza landuta eta elkargunetzako ikuspegi feminista kontuan hartuta, giza taldeak konturatu egin dira zenbait dinamika eta eztabaida jorratu behar direla feminismoan bertan. Izan ere, zenbait gai landu dira; esate baterako, bizitzako zenbait arlotan gertatzen den indarkeria matxista, arrazakeria, xenofobia, boterea, pribilegioak eta lidergoak. Zapalkuntzaren historian bizitzak eta borrokak isildu eta baztertzen dituzten gai horiek jorratzean, berez jende guztiarentzat eraldatzaileak eta askatzaileak diren estrategiak sortzen dira.

Aipatutako metodologiaren ekarpen teoriko eta praktikoak ez ezik, prozesuan bertan erakutsitako erabateko malgutasuna ere izan da nagusi, taldeen premietara eta haien ekintzak nahiz elkarrizketak zeharkatu dituzten gaur egungo gaietara etengabe egokitze eta berregokitzeko orduan. Inplikaturako talde teknikoarentzat funtsezkoa izan da prozesua bera erabilgarria bezain aberasgarria izatea parte-hartzaileentzat. Horretarako, gaiak eta ibilbideen euren diseinua ere egokitu behar dira zenbait talderentzat. Hori dela eta, prozesua bera edo bertako saio/jarduera batzuk berreginez gero, parte-hartzaileei agiria aurkeztea gomendatzen da, proposatutako gaiak nola jorratu nahi dituzten eztabaizatzeko eta adierazteko aukera izan dezaten.



SAIOEN SISTEMATIZAZIOA

1. ATALA

ERAKUNDEAK INDARTZEA

Erakundeak indartzeko prestakuntza-atalak erakundeei funtsezko bi alderditan laguntzea dauka helburu. Lehenengo eta behin, partaidetzazko metodologiaren bitartez, zer ahulezia eta indar dituzten antzematen laguntzea du xede. Bestetik, behar besteko tresnak eskaintzea ere badu helburu, erakundeak sendotzeko, elkarbizitzarako nahiz aktibismoarako ingurune osasuntsuen eraketa sustatzeko eta, horrela, partekatutako lidergo-eredu kontzienteak bultzatzeko.

1. DINAMIKA

HITZARMEN KOLEKTIBOAK

Prestakuntza-prozesuari hasiera emateko, lehenengo saioan behar besteko gunea sortzea proposatu genuen, elkar ezagutzeko eta saio guztietako jardunbiderako hitzarmen kolektiboen dekalogoia egiteko.

Lehenengo topaketa horren helburua ere bazen taldearen aniztasuna agerian jartzea, parte-hartzaile bakoitzaren berariazko premiak nabarmentzea eta era guztietako giza taldeak zehaztea, zainketaren eta empatiaren bidez entzunaldi aktiborako eta trukerako lehenengo eremua sortzeko asmoz.

35. orrialdeko atalean, saioari hasiera eta amaiera emateko eta hitzarmen kolektiboak sortzeko dinamiketarako proposamenak ere badaude eskuragarri.



2. DINAMIKA

TALDEAREN KOHESIORAKO DINAMIKA

 **Iraupena:** 15 - 20 minutu.

 **Materialak:** hiztuna eta musikaren aukeraketa.

Emakume guztiok desberdinak gara, baina antzekotasunak ditugu.

Metodologia

Musika alaia jartzea eta eremuan bertan hara-hona mugitu daitezen proposatzea. Osteratxoan edo dantzan bertan, zenbait agindu iragarriko dira, taldean elkartu daitezen eta, segidan, osteratxoa egiten jarraitu dezaten. Horrela, talde txikiak eratuko dituzte, guztiok antzekotasunak ditugula eta, aldi berean, desberdinak garela nabarmentzeko. Dinamika hori eremu mistoetan eta ez-mistoetan erabili ahal izango da.

Aginduen proposamena (agindu gehiago edo gutxiago erabili ahal izango dira dinamikaren iraupenaren arabera):

 Etxebizitza taldean partekatzen dutenak. Familiarekin beste batean bizi direnak. Hirugarrenez, bakarrik bizi direnak

 3. solairuan bizi direnak.

 Betaurrekoak darabiltzatenak eta ez darabiltzatenak.

 Ile kizkurra edo lisoa dutenak.

 Seme-alabak dituztenak (0, 1, 2 edo 3).

 Eskumatiak direnak eta ezkertiak direnak.

 Dantzatzea gustuko dutenak eta ez dutenak.

Eztabaida sortzeko kontuan hartu beharrekoak:

Dinamikaren amaieran, antzekotasunak ditugula ikusi ahal izango dugunez, hurbiltasun handiagoa edukiko dugu inoiz uste izango ez genuenean. Dinamika horren bidez, askotan estereotipoetan oinarritzen garela ere konturatuko gara, baina, batez ere, emakumeak migratzaileak edota arrazializatuak direnean. Dinamika horrek gainerako parte-hartzaileak ezagutzen ere lagunduko digu.

3. DINAMIKA

 **Iraupena:** 15 - 20 minutu.

 **Materialak:** paperografoa eta markatzaileak.

Taldearen hitzarmenak

Azaldu egingo da zeinen garrantzitsua den taldeen jardunbiderako hitzarmen kolektiboak sortzea. Funtsezkoa izango da eremuaren helburua zein den argitzea, norberak pentsatutako hitzarmenak lotuta egon daitezen. Lehenengo saio honetan, elkarrekin honako gai hauei buruz hausnartzea izango da helburua: jarduketa feminista anitzak eta hurbi-lak, eremu seguruak eta partekatutako lidergo horizontalak eratzeko modu berriak.

Hitzarmen horiek agiri partekatuan azaldu beharko dira, hurrengo saioetan egon beharko da ikusgai eta, bertan, zehaztutako hitzarmen horiek aldatzeko eskatu ahal izango dute parte-hartzaileek.

AMIA**ERAKUNDEEN ETA GIZA TALDEEN JARDUNBIDEAREN DIAGNOSTIKO KOLEKTIBOA.**

Iraupena: ordubete edo ordubete eta erdi, taldearen tamainaren arabera.



Materialak: paperografoa eta markatzaileak.

AMIA metodologia (ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak) analisirako tresna da, eta elementu horiek abiapuntutzat hartzen ditu, taldearen jardunbidea sakonago aztertu nahian. Hori dela eta, oso erabilgarria izan daiteke, gaur egungo egoera ebaluatzeko eta etorkizuneko ekin-tzen plangintza egiten laguntzeko.

Dinamika horren bidez, batera zehaztu daiteke zein diren AMIArekin lotuta dauden alderdiak, eta, era berean, batera hausnartu daiteke erabakiak hartzean, lidergoak banatzean eta dinamika egin aurretik edo bitartean taldeak beste alderdi batzuk zehaztean aldatu edo hobetu nahi dituen premiei buruz.

A

Ahuleziak: kontuan hartu beharreko barruko faktoreak dira, giza taldearen lana mugatu dezaketelako; esate baterako, baliabiderik ez egotea, agerikotasuna txikia izatea, barruko gatazkak egotea edo ekintzan edota estrategian gabeziak egotea.

M

Mehatxuak: oztopoak edo arriskuak izan daitezkeen edo arreta eskatzen duten kanpoko faktoreak dira.

I

Indarrak: giza taldearen barruko alde onak dira (maila pertsonalean, talde-mailan eta maila materialean); esate baterako, bere kohesioa, antolatze gaitasuna, eskuragarri dituen baliabideak, bertako kideen trebetasunak eta erdietsitako lorpenak.

A

Aukerak: erabilgarriak izan daitezkeen kanpoko faktoreak dira; esate baterako, aldaketa sozialak, beste erakunde edo sare batzuekin egindako aliantzak... Era berean, landu egin daiteke zergatik erabaki duen taldeak indartzeko prozesua egiten hasteko une egokia dela.

Apuntes metodológicos:

- * AMIAk honako hauexekin lotzeko aukera ematen digu: taldeak eskaintzen dituen faktore onak eta egindako ibilbidean lortutako aurrerakuntzak nahiz ikaskideak.
- * Batzuetan, aukerak nahiz indarrak nekez antzematen dira, eta ulertzeko modukoa da, askotan gai negatiboek espazio eta denbora gehiago behar dituztelako prozesuetan. Dena dela, badu alde onik, antzematean aurrera eta hobera egiten dugunez eta hazi egiten garenez, esperientzia kolektibo sendoa daukagulako eta banan-banan nahiz taldean hazten garelako.
- * AMIA amaitutakoan, parte-hartzaileekin egiaztatuko dugu gai batzuetan arreta handiagoa jarri nahi duten edo gai batzuk zabalik geratu diren, besteak beste.

ZERTARAKO IZAN DAITEKE ERABILGARRIA AMIA EGITEA?

Barruko egoera ebaluatzea: AMIA analisiak giza taldearen zer faktore doazen ondo (indarrak) eta zer arlo hobetu behar diren (ahuleziak) antzematen laguntzen digu. Horrela, errazagoa izan daiteke zenbait erabaki hartzea; esate baterako, nola banatu baliabideak, nola konpondu barruko arazoak edo nola hobetu erakundearen egitura.

Estrategiak zehaztea: aukerak eta kanpoko mehatxuak antzematean,

giza taldeak badauka bere estrategia egokitzerik, egoera onei onura ateratzeko eta ustezko erronken aurrean prestatzeko. Hori, hain zuzen ere, funtsezkoa da aldaketa sozialaren bila dabilen mugimenduarentzat, kanpoko testuingurua oso aldagarria izan daiteke-eta.

Kohesioa sendotzea: giza taldeko parte-hartzaileak AMIA prozesuan inplikatzeko badira, badago barruko komunikazioa hobetzerik, antzeko xedeak bateratzerik eta kide-tza-sentipena sortzerik. Ahots guztiek badute haienez taldearen indarrak edo ahuleziak zein diren adierazteko eztabaidan parte hartzerik eta, horrela, partaidetza handiagoa sustatzerik.

Lortzeko moduko helburu eta plan errealistak zehaztea: analisiari esker, benetan eskuragarri dauden baliabideetan eta giza taldea mugitzen den testuinguruan oinarritutako xedea edo helburuak zehazten dira. Horrez gain, erabilgarria da, aliantzak, prestakuntza edo baliabide gehigarriak behar dituzten arloak antzemateko orduan.

Erantzuteko gaitasuna hobetzea: ustezko mehatxuei aurrea hartzean (feminismoaren aurkako kanpainak edo finantzaketaren murrizketak, esaterako), giza taldeak badu erantzun proaktiboak garatzerik, erreaktiboak garatu beharrean.

SABERES Y LIDERAZGOS COMPARTIDOS

Iraupena: ordubete edo ordubete eta erdi, taldearen tamainaren arabera.



Materialak: paperografoak, markatzaileak eta bozgorailua.

SARRERA

Taldean bertan jakitateak eta lidergo partekatuak lantzea funtsezkoa da, lankidetzan, berdintasunean eta elkarren arteko jabekuntzan oinarritutako kultura sustatzeko. Ikuspegi horrek erabakiak hartzean horizontaltasuna bultatzen duenez eta taldekide bakoitzaren gaitasunak aitortzen dituenek, onuragarria izan daiteke taldearentzat nahiz taldekideentzat.

Tailer hau egitean, Cony Carranza eta Emilia Larrondo dinamizatzaleek bi puntu garrantzitsu nabarmendu dituzte, jakitateak eta lidergoak zergatik landu behar diren azaltzeko. Honako hauexek dira:

Ikuspegi anitzak: parte-hartzaile bakoitzak bere jakintza partekatzeko aukera daukanean, taldearen proposamenak eta estrategiak aberasten dira. Esperientziak eta jakitateak anitzak direnez, arazoak eta jorratu beharreko zenbait faktore garrantzitsu ere lantzen dira hainbat ikuspuntu kontuan hartuta, irtenbide sortzaileagoak lortu ahal izateko.

Jabekuntza kolektiboa: emakume guztion jakitateak baloratzean eta aitortzean, kideak eta nabaritasuna sentitzen dira taldean bertan. Pertsona bakoitza baloratuta sentitzen denez, haien motibazioa eta helburu bateratuen inguruan duten konpromisoa indartzen dira.

Talde txikiak sortzea proposatzen da, hausnartzeko, taldeen jardunbideari zein taldekideei buruzko zenbait galdera trukatzeko eta, eztabaidaren ondoren, eztabaidako bigarren uneari begira osoko bilkuran bertan partekatzeko.

Lan egitean, hiru faktore hauek kontuan hartzea proposatzen da: konfiantza, nekea eta gatazkak. Konfiantza edozein talderen jardunbiderako oinarritzko faktoretzat hartzen da. Nekea gure garaiko faktorea da, eta

talde zein pertsona guztietan agertzen da. Azkenik, gizakiaren berezko ezaugarria den gatazka ere badugu.

Dinamikari begira, faktore bakoitzaren azalpena partekatuko da, talde txikietan eztabaidatuko da eta, azkenean, eztabaidagai edo hausnarketa nagusiak trukatu ahal izango dira osoko bilkuran.

1. TALDEA – KONFIANTZA

Konfiantza oinarritzko faktorea da, jende anitzak bat egin dezan eta proiektu edo ekintza bateratuarekin konpromisoa hartu dezan. Konfiantza eratzea ez da erraza, baina badago eratzetik, eta oso-oso motibatzailea da taldearentzat, konfiantza elkartasunaren eraketarekin eta partekatzeko prozesuarekin ere badagoelako lotuta. Hori dela eta, kapitalismoari eta matxismoari aurre egiteko desobedientziatzat hartu daiteke.

- 1.** *Eremuetan, taldeetan eta militantzietan gertatzen diren konfiantza gutxiko eta aurkakotasuneko egoeren adibideak aipatu litzakete?*
- 2.** *Zergatik da hain zaila geure zaurgarritasunak taldeetara ekartzea?*
- 3.** *Zergatik da hain beharrezkoa geure artean konfiantzako eremuak sortzea?*

2. TALDEA – GATAZKAK

Eremu kolektibo gehienetan, gatazka ikaskuntzaren eta eraldaketaren osagaitzat hartzeko eta lantzeko zailtasun handiak daude. Botere-abusua zabalik dauden gatazka askoren eta hausturak sorrarazi dituzten beste batzuen azpian dago erabat. Jorratzen ez direnean, gatazkek eremuak hausten dituzte, eta bertan bizi direnen kalterako dira.

1. Partekatu dituzten zenbait eremutan sortutako gatazken adibideak aipatu litzakete?
2. Jorratu egin ahal izan dira? Horrelaxe bada, nola? Bestela, zergatik?
3. Haien ustez, zer jarraibide dira beharrezkoak gatazkei hurbiltasunez aurre egiteko, ikasbideak sorrarazteko edota taldearen kohesioa hobetzeko?

3. TALDEA – NEKEA

Bileretan eta batzarretan, “nekea” hitza entzuten da sarritan. Behar bada, nekeak argi eta garbi adierazten du sistema gizagabea dela eta laneko ordutegien zein norberaren bizimoduaren artean dagoen oreka ezegonkorren erakusgarri dela. Akidura sekulako nekearen adierazpena da, hitz hori esperientzia fisikoaren adierazgarri da eta askotan aipatzen da taldeetan.

1. Nekatuta, gogaituta... daudela diotenean emakumeek azaltzen dituzten kexa handien adibideak aipatu litzakete?

2. Zer da geure buruari eta gainerakoei gehien eskatzen dieguna?

3. Nolako bilerek, eremuek, ordutegiek eta zereginek sustatuko litzukete talde edota giza talde erakargarriagoak eta konpromiso handiagoak?

Taldeak aurreko dinamikan bezala banatuko dira. Oraingoan, ordea, jarduketa feminista berriak, aliantza politikoak eratzeko modu berriak eta eredu hegemonikoak hausteko modu berriak jorratuko dira honako hausnarketa hauen bidez:

1. taldea - Konfiantza - Adiskidetasun politikoa

“Adiskidetasuna politika berria sortuko den lurra izango da”
Ivann illich

2. taldea - Botere-harremanak - Besteengan sinestea, konplizitatea, itun politikoa

“Ez izan beldur, ez izan zinikoak eta zeuon buruarengan nahiz beste emakume batzuegan konfiantza edukitzen jarraitu. Askapen kolektiboarekin amesten jarraitu”

Scott Crow

3. taldea - Nekea - Erkidegoaren boterea

"Baliteke garrantzitsuagoa izatea erkidegoan egotea, zaurgarria izatea eta erabat benetakoa izatea arrazoia edukitzea edo irabaztea baino"

Adrienne Maree Brown

OHAR METODOLOGIKOAK

Oraingoan, dinamikaren amaieran, parte-hartzaileen hausnarketak bilduko dira paperografoan. Informazio hori, gainera, taldearentzat izan daiteke interesgarria etorkizunerako lan moduan, hitzarmenak indartu ahal izateko. Gai nagusien akta egitea gomendatzen da.

Eztabaidetan arakatu daitezkeen gaien proposamena:

- * Adiskidetasun politikoa, itunak, aliantzak...
- * Emakume feminista anitzen hausnarketarako eta kontzientziazio politikorako eremua eratzea.
- * Gaitasunak, trebetasunak eta lidergoak indartzea. Horretarako, zaurgarritasunak nahiz aniztasuna onartzea eta antzeko helburuak bilatzea.

* Konfiantzatik bertatik, esperientziak eta jakitateak partekatzea.

* Konpromisoa lortzeko, entzun eta abegia ematen duen jarduketa alaia kontuan hartzea...

Vivir Quintanaren Sorora abestiaren bidez amaitzeko dinamika:

 https://www.youtube.com/watch?v=hE4P-K_QUg8

2. ATALA

ZIBERFEMINISMOAK: GAUR EGUNGO TRESNAK ETA EZTABAIDAK

SARRERA

Gaur egungo eztabaidak egiten eta hausnarketarako zein informazioaren erkaketarako eremu seguruak sortzen laguntzeko asmoz, InteReden gurekin lan egiten duten taldeei proposatu diegu honako gai hauei buruz eztabaidatzea: manosfera, sare sozialetan aurkitzen ditugun diskurtso misoginoak eta gorroto-diskurtsoak eta komunikabideek bertan daukaten zeregina.

Laugarren olatu feministaren goren unean, emakumeenganako indarkeriaren aurkako borroka eta indarkeria sexuala agerian jartzeko prozesua dira nagusi. Hori dela eta, eraldaketa sakona gertatu da Estatu espainoleko eta maila globaleko egoera sozial eta politikoa. Olatu hori indartsu sortu zen 2017an-edo, orduan funtsezko gertaerak jazo zirelako, "La Manadaren" epaiketa eta epaia, esaterako, eta mobilizazio feminista suspertu zutelako. Herritarrek epai horrengatik izandako erantzuna sumindura kolektiboa izan zen, eta feminismoa berriro egituratu zen antolatutako mugimendu sozial moduan nahiz teoria politikoko dimentsio moduan.

LAUGARREN OLATU FEMINISTAREN TESTUINGURUA

Olatu honen ezaugarri bereizgarrietakoa borroka feminista globalekin lotzeko eta oihartzuna izateko duen gaitasuna da; esate baterako, Estatu Batuetako #MeToo mugimendua, indarkeria sexuala eta zenbait sektoretako botere-abusua elkarrikteta publikoaren erdigunean jarri



zituen; eta Argentinako Ni Una Menos mugimendua, konpondu gabeko erronkak eta ekintzak sortzeko garrantzia mahai gainean jartzen dituen, genero-indarkeria eta bere muturreko adierazpide hau desagerrarazteko: feminizidioak. Martxoaren 8an zenbait herrialdetan egindako greba feministak ere mugimenduaren garrantziaren adierazgarri izan ziren, eta, bertan, zeharkakotasuna nahiz zenbait gizarte-mailatako emakumeen partaidetza nabarmendu ziren.

TEKNOLOGIAREN ETA SARE SOZIALEN PAPERA

Feminismo garaikidearen funtsezko ezaugarrietakoa teknologia digital eta mugikorren erabilera estrategikoa da, jakintza sortzeko eta zabaltzeko eta mobilizazio kolektiboa sustatzeko orduan. X (Twitter), Facebook, Instagram, TikTok eta antzeko sare sozialek ideia feministak eskuratzeko aukera demokratizatu dutenez, gizarteko sektore zabalagoetara iristen dira, eta, berariazko gertaerak jazozen direnean, erantzunak zein kanpainak antolatzen dira azkar-azkar.

Sareen erabilera horrek nazioaz haraindiko erkidego feministaren sorrera sustatu du, eta era guztietako genero-indarkeriaren aurka borrokatzen da. #NiUnaMenos, #YoTeCreo, #Cuéntalo eta antzeko hashtag zein online mugimenduak tresna ahaltzuak dira, indarkeria matxista agerian jartzeko eta bizitzako arlo guztietan, pertsonalean nahiz instituzionalean, desagerrarazteko orduan.

FEMINISMOAREN AURKAKO JOERA

Azken bost urteotan, feminismoak aurrerakuntza handiak lortu ditu gizartean, eta nolabaiteko aurrerapenak erdietsi ditu berdintasunaren

arloan. Horren adierazgarri, legeak aldatu dira, politika publikoak jarri dira abian eta emakumeen eskubideak gero eta gehiago aitortzen dira zenbait arlotan. Arrakasta horrek, ordea, erronka eta erresistentzia ugari izan ditu.

Feminismoa hazi ahala, feminismoaren aurkako joera ere antzeman da, eta, bertan, sektore kontserbadore nahiz populistek erantzun kritikoa eman diote mugimenduari. Feminismoaren aurka dauden horien ustez, feminismoa “genero-ideologia” da, sektore politiko progresistek inposatu dute eta indar handiagoa dauka zenbait eratako zirkulu sozialetan, adinari eta gizarte-mailari dagokienez. Diskurtso horiek ustezko “neutraltasuna” edo “oreka” defendatzen dute haientzat larregizkoak diren eskaera feministen aurrean, eta sare sozialak nahiz plataformak darabiltzate, euren jarrerak sakabanatzeko: manosfera, alegia.

Manosfera erkidego birtualen sarea deskribatzeko erabilitako terminoa da. Bertako kideak gizonak dira, batez ere, eta generoarekin, harremanekin zein gizontasunarekin lotutako ideiak eta diskurtsoak partekatzen dituzte. Manosferaren barruan, zenbait azpierkidego daude, eta haietako askok narrazio misoginoak sustatu eta emakumeen zein beste gutxiengodun batzuen aurkako gorroto-diskurtsoak bultzatzen dituzte.

Batzuetan, gorroto-diskurtsoak eta misoginia modu umoretsuan edo memeen bidez aurkezten direnez, azpiko mezua sakon aztertzen ez dutenek kaltegabeak direla uste dute. Ikuspegi horren ondorioz, misoginia normalizatu egiten da zabalagoak diren eta hain kritikoak ez diren audientzien artean.

Ingurune horretatik kanpo, askotan mezu horien zabalkundeak

komunikabideen bitartez indarra hartzen duenez, mezuak areagotu egiten dira erabat. Batzuetan, gainera, komunikabide kontserbadore batzuek manosferari buruzko informazioa ematen dutenean, haien diskurtsoak areagotzen dituzte agerikotasuna ematean, eta emakumeei leporatzen diete horrelako eremu gehiago egotea.

1. DINAMIKA

Taldearen osaketaren eta ezaugarrien arabera, hurrengo testuetako batzuk irakurtzea gomendatzen da, parte hartzaileen arteko ideia-trukea prestatzeko asmoz. Jarduera horrek honako hauxe dauka helburu: parte-hartzaile guztien ekarpenen eta esperientzien bidez elkarrekin ikastea eta taldeak adostutako jarrerak ezartzea, jendaurrean adierazpenik egin behar badute edo jarduera publikoren bat garatu behar badute.

IRADOKITAKO MATERIALAK:



Patricia Gonsálvez · [Manosfera: Donde se quieren los hombres que odian a las mujeres](#)



Cristina Fallarás · [Grandes ventajas para los hombres](#)



Ana Bernal - Triviño · [¿La igualdad ha ido lejos y discrimina a los hombres?](#)



Andrea Momoitio · [Ellos, probecicos](#)

Manosferaren eta ziberindarkerien kontzeptuak labur-labur aurkeztu

ostean, oihartzun berezia eduki duen kasu berriren bat aipatu daitekeela kontuan hartuta, parte-hartzaileei galdetu ahal izango zaie irakurketetako zer gai nabarmenduko luketen. Ideiak trukatzeari dinamizazioa beharrezkoa izanez gero, gaien arabera sailkatutako honako galdera hauek egitea iradokitzen da:

EZTABAIDA SUSPERTZEKO GALDERAK:

Ziberindarkeriak

Nola azalduko zenuke zer den ziberindarkeria matxista? Nolako forma hartu dezake edo nolako forma hartzen ari da gaur egun?

Zein dira gure giltzarriak ziberindarkeria antzemateko orduan?

Nola prebenitu?

Adierazpenak eta plataformak

Uste duzu gizarteak, oro har, behar beste dakiela zer den ziberindarkeria matxista? Zergatik bai edo zergatik ez?

Zer ekintza kolektibo jarri litezke abian, ziberindarkeria matxistari aurka egiteko eta online errespetuaren kultura sortzeko?

Iritzi eta kontzientzia soziala

Uste duzu gizarteak, oro har, behar beste dakiela zer den ziberindarkeria matxista? Zergatik bai edo zergatik ez?

Zer ekintza kolektibo jarri litezke abian, ziberindarkeria matxistari aurka egiteko eta online errespetuaren kultura sortzeko?

Prebentzioa eta hezkuntza

Zer prebentzio-neurri ezarri daitezke ziberindarkeria matxista murrizteko?

Nola hezi belaunaldi berriak ingurune digitaleko errespetuaren inguruan eta nola prebenitu ziberindarkeria matxista?

Erantzukizuna eta ekintza kolektiboa

Zer zeregin dute gizonek ziberindarkeria matxistaren aurkako borrokan? Nola inplikatu daitezke eraginkortasunez?

Elkargunetza eta ziberindarkeria

Nolako lotunea dauka ziberindarkeria matxistak beste era batzuetako bereizkeriarekin; esate baterako, arrazakeria, homofobia edo transfobia?

Ziberindarkeria matxistari emandako erantzunetan, nola kontuan hartu daitezke elkargunetza horiek, inklusiboagoak eta eraginkorragoak izan daitezen?

Feminismoaren aurkako ziberindarkeria

Giza talde/aktibista feminista nabari batzuen aurkako ziberindarkeriarik ikusi duzu inoiz? Zure ustez, feministatzat hartutako giza taldeen aurkako nolako ziberindarkeria-adierazpenak dira ohikoenak?

Giza talde moduan, nola jokatu zenezakete ziberindarkeriako ustezko gertaeren aurka?

2. DINAMIKA

SARE SOZIALETAKO AKTIBISMO FEMINISTETARAKO TRESNAK



Iraupena: ordubete edo ordubete eta erdi, taldearen tamainaren arabera.



Materialak: paperografoa eta markatzaileak.

Aldez aurretik, AMIA analisisan, talde parte-hartzaile batzuek sare sozialetako agerpena lortzea edo handitzea hartu dute aukeratzat. Era berean, aldez aurretik, kide gazterik ez egotea eta zenbait plataforma erabiltzen ez jakitea hartu dute taldearen ahuleziazat.

AMIA analisia aldez aurretik egin bada, berriro eutsiko zaio dinamikari hasiera ematen zaionean. Analisia egin ez bada, ordea, AMIA analisisiko elementuak zein diren azalduko da. Ondoren, parte-hartzaileek antzeko analisia egin beharko dute sare sozialetan duten jarduera bakarrik aztertzeko.

Analisia batera egin ostean, ideiak trukatzeko eta hitzarmenak ezartzeko eremua irekiko da, taldearen komunikaziorako plana egiteko. Honako gai hauek jorratzea gomendatzen da:



Komunikazioaren helburua: nolako hartzaileak izan nahi dituzue? Nolako informazioa zabaldu nahi duzue?



Baliabideak: sare sozialetako kontuak administratzeko behar besteko jakintzak dituzue? Nolako argitalpenak sortzen dakizue eta zeintzuk ez? Badakizue nolako

argitalpenak izan daitezkeen nahikoa erabilgarriak, talde moduan dituzuen komunikazio-helburuak lortzeko? Badaukazue taldearen adierazgarri den logorik eta kolorerik?

*** Egutegia:** zer data nabari daude taldearen egutegian? Aldarrikapenerako edo oroimenerako datarik duzue, taldeak gai zehatzen bati buruz daukan jarra zabaltzeko? Sare sozialen bidez zabaltzeko litekeen jendaurreko jarduerarik egiten duzue data zehatz batzuetan?

*** Erantzukizunak/konpromisoak:** nork bildu dezake zuon sare sozialak elikatzeko ikus-entzunezko materiala? Nork igo ditzake argitalpenak eta nork idatzi ditzake horretarako testuak? Zer estrategia kolektibo jarriko zenuke abian, zuon profilek edonolako ziberindarkeria jasango balute?

EZTABAIDA SORTZEKO ETA IDEIAK TRUKATZEKO OHARRAK

Kontuan hartu beharra dago plataforma bakoitzak oso adin-tarte desberdinetako audientzia daukala xede: TikTok, 13-25 urte; Instagram, 18-34 urte; Twitter, 30-50 urte; eta Facebook, 40-64 urte. Horrez gain, haietako bakoitzean elkarreragin gehien dituen eduki-mota ere desberdina denez, taldeak oso kontuan hartu behar du TikTok bideo laburrak partekatzen direla batez ere. Instagramen eta Facebooken, ordea, bada-

go kartelak, ekintzetarako deialdiak edo egindako jardueren argazkien karruselak ere partekatzerik.



SOINU-ARTXIBOAK

Soinu-artxiboak sortzea proposatu zen, giza taldeek euren kontakizunak azaldu behar zituztelako, haien aldarrikapenak oihartzun handiagoa eduki behar zutelako eta aldaketak sorrarazi behar zirelako.

InteRed Euskal Herrian bertan, honako haxe geneukan helburu: informazioaren eta edukien eraketaren bidez, giza taldeek eragin soziala sortu ahal izatea euren errealitateetatik. Horrez gain, Celeste Agüerok sortutako metodologiak honako haxe landu eta eztabaida bultzatzen du: ahozketasunerako prestakuntza eta giza taldeen jakintzaren zein nortasunaren eraketa kolektiboa. Bestetik, honako arlo hauetako faktore teknikoak ere jorratzen ditu: podcasten diseinua, ekoizpena, errealizazioa, edizioa eta zabalkundea.

KONTUAN HARTU BEHARREKOAK

Grabatu baino lehen, giza talde bakoitzak eztabaida laburra egingo du soinu-artxiboetan jorratu nahi lituzkeen gaiei buruz, bere hartzaileei buruz eta zabalkundeari buruz. Ostean, soinu-artxiboaren gidoia egingo dute guztien artean.

Horrez gain, parte-hartzaile bakoitzak gustuko dauzkan abestien laginaren bidez, abestiak erreproduzitzea eta elkarrekin abestea gomendatzen da izotzaldia urtzeko eta ahotsak berotzeko jarduera moduan. Era berean, aho-korapiloak edo ahotsen bitartez jokatzeko aukera ematen duen edozein jarduera errepikatu ahal izango dira.

Adibide edo inspirazio moduan, hona hemen **Berdintasunaren Unea da** kanpainaren esparruan egin diren eta erreproduzitu daitezkeen soinu-artxiboak:

EGILEAK	SOINU-ARTXIBOAREN MOTA	TEMÁTICA
MUMAMI	Eragina	Aurkezpena: taldea eta adineko emakume migratzaile moduan dituzten errealitateak.
Zutitzen Errekaldean	Eragina	Errekaldeko jaietan jarduera feministak antolatzea.
Gaxuxa-Lezoko Emakumeen Taldea	Dekalogoia	Elkarren arteko zainketa eta bizimodu ona Lezon.
MUMAMI	Irrati-antzerkia	Eguneroko migratzailea.
Egibide	Eragina	Indarkeria matxisten aurkako sentsibilizazioa.
 https://intered.org/es/intered-euskal-herrian-komunitatean-berdintasunari-ekin		

3. ATALA

FEMINISMO ANITZAK

SARRERA

Parte-hartzaile gehienek indarkeria matxistei buruzko hausnarketa pertsonal eta kolektiboak egin zituzten aldez aurretik. Izan ere, talde batzuek salatzea eta emakumeok zein disidentziek jasaten ditugun indarkerien aurka jardutea zeukaten helburu. Hori dela eta, **Emakumeak Eraldatzen** kanpainaren hirugarren atalean, eduki bazeuzkaten jakintzak sakon aztertu eta osatu ziren, emakumeen aurkako indarkeriak era askotakoak, egiturazkoak, sistematikoak edo elkargunetzakoak direla kontuan hartuta.

Lehen adierazi den bezala, **Berdintasunaren Unea Da** kanpainan, funtsezkoa da gaiak talde bakoitzaren interesetara eta ibilbidera egokitzea. Gai-multzo hori eta, batez ere, elkargunetzari dagokiona jorratzean, lan bereizgarria egin zenez, talde bakoitzarekin zenbait abiaduratan egin zen aurrera, elkargunetzaren jarduketei nahiz teoriari buruz zeuzkaten hurbiltasunaren eta jakintzaren arabera. Hori dela eta, jakintzak barruratu zituzten, eta era bateko zein besteko zapalkuntza-sistemen ondorioz sortutako pribilegioek eta desberdintasunek zeharkatzen dituzten subjektuak direla adierazi zuten.

.....



1. DINAMIKA

 **Iraupena:** 40 minutos.

 **Materialak:** paperografoak, markatzaileak, post-ita eta bideoa erreproduzitzeko gailua.

1. TALDEA

Dinamikak egon badauden indarkeria-motak zein diren eta gure egunez egunekoan nola adierazten diren aztertzea dauka helburu. Lehenengo unean, nolako indarkeriak ezagutu eta antzematen dituzten galdetuko zaie. Ondoren, bi talde txikiagotan banatuko da taldea, eta indarkeria-moten definizioak zein diren zehazteko eskatuko zaie. Izan ere, zenbait paperetan egongo dira idatzita parte-hartzaile guztien esku. Era berean, adibideak erantsiko dizkiete ezagutzen dituzten definizioei.

Honako definizio hauek erabiltzen dira:

*** Indarkeria instituzionala:** Estatuko eragileek erabiltakoa da, eta honako hauexen bidez garatu daiteke: pertsona baten eta pertsona-talde baten kalterako diren arauak, jarduketa instituzionalak, arduragabeak eta gabeziak. Indarkeria instituzionalean, Estatuak boterea darabil, kaltea sorrarazteko eta ezarritako menderakuntza-mekanismoak indartzeko.

*** Indarkeria psikologiko eta emozionala:** ongizate psikologiko edo emozionalaren kalterako den edozein egintza edo hutsegite da; esate baterako, utzikeria, axolagabekeria errepikakorra, zelotipia, irainak, laidoak, gutxiespena, bazterkeria, aihergatasuna, desleialtasuna, erkaketa suntsitzaileak, arbuioa, autode-terminaziorako murriztapena edota mehatxuak.

*** Indarkeria fisikoa:** beste pertsona baten gorputza edonola kontrolatzea, uzkurtzea eta erasotzea da, gorputza bera zuzenean ukituta (kolpeak, atzamar-kak, bultzadak) edo mugimendua mugatuta (lokarria, konfinamendua).

*** Indarkeria sexuala:** emakume baten gorputza edota sexualitatea mehatxatu, beheratu edo kaltetzen duen edozein egintza da, bere askatasunaren, duintasunaren edo osotasun fisikoaren aurkakoa da-eta. Bote-re-abusuaren adierazpidea da, eta, bertan, gizonak emakumeen gainetik daude, laidotu eta objektutzat hartzen dituztelako.

*** Indarkeria ekonomikoa eta ondare-arlokoa:** emakume baten biziraupen eta independentzia ekonomikoari kalte egitea helburu daukaten egintza edo hutsegite guztiak dira. Bertan, diru-sarrerak kontrolatzeko murrizketak dira nagusi.

* **Laneko indarkeria:** laneko lotunea daukatenez garatzen dutena da, bertan emakumeei erantzukizun-postuetara iristeko, lan-egonkortasuna lortzeko edo familia eta bizitza bateragarri egiteko zailtasunak edo eragozpenak jartzen dizkietela kontuan hartuta.

* **Indarkeria politikoa:** genero-elementuetan oinarritutako eta eskubide politikoen nahiz hauteskunde-eskubideen erabileraren esparruan garatutako ekintzak eta hutsegiteak dira (baita tolerantzia bera ere), haien helburua edo emaitza kargu publikoko berezko pribilegio edo eskubide politikoen aitortza, gozamina edota erabilera kaltetzea edo ezeztatzea denean.

Talde txikietan antolatutako eremua amaitutakoan, bi taldeen emaitzen artean dauden aldeak (egon baleude) partekatu eta eztabaidatuko dira, eta, horretarako, honako galdera hauek gitea iradokitzen da:

Talde moduan, nolako indarkerian egiten duzue eragin handiena?

Zuon iritziz, gizartean erraztasun berberaz antzematen dira era guztietako indarkeriak?

Zuon ustez, zein dira ikusezinagoak? Nola jarri zenitzakete agerian?

 *Violencia machista contra las mujeres en política* - **Aitziber Pérez de Karkamo**
<https://www.youtube.com/watch?v=STCMKJ2BUnc>

2. TALDEA

 **Materialak:** Papelógrafos y marcadores

Giza talde batzuek behar besteko eremua sortu nahi zuten, saioak egiteko orduan gero eta garrantzi mediatiko handiagoa zeukaten indarkeria matxistako kasuei buruzko iritziak partekatzeko asmoz. Kasu batzuk beste herrialde batzuetan gertatu ziren, baina tokian tokiko albisteak ere izan zituzten hizpide, giza taldeek eragina edukitzeko eta salatzeke moduei buruzko ideiak partekatu behar zituztela uste zuten-eta.

Saioaren aurretik, hurrengo baliabideak erabili ditzaketela azalduko zaie parte-hartzaileei, ideia garrantzitsuei buruzko oharra idatziko dira eta zer zalantza dituzten azalduko dute:

 *Indarkerietako gaietako antipunitibismoari buruzko hausnarketak:*
<https://www.pikaramagazine.com/2021/12/reflexiones-sobre-anti-punitivismo-en-tiempos-de-violencias/>

 *Feminisme contra el punitivisme. Rita Segato conversa amb Laura Macaya i Nuria Alabao:*
<https://www.youtube.com/watch?v=fTH3FaX0UGY>

Saioa hasitakoan, eremu txikia irekiko da, gaiei eta azken albisteei buruzko ideiak nahiz emozioak partekatzeko. Ondoren, gomendatutako baliabideek iradoki dizkieten oharra edota ideiak partekatzeko eskatuko zaie parte-hartzaileei. Era berean, gaia hizpide daukan beste edozein baliabide partekatu dezaketela azalduko zaie.

EZTABAIDA DINAMIZATZEKO IRADOKITAKO GALDERAK:

Punitibismoaren aurkako ikuspegiak alde interesgarriak dauzka zuon giza taldean egiten duzuen lanari begira?

Autodefentsa feminista hartzen duzue punitibismoaren aurkako estrategiatzat?

Zuon ustez, punitibismoaren aurkako ikuspegitik, nola partekatu daiteke tresna hau zenbait adinetako emakumeekin, teoria eta praktika kontuan hartuta?

Zuon eremuetan, badakizue nola lotu punitibismoaren aurkako feminismoa leheneratzea edo eraldatzea helburu daukan justiziaren ikuspegiarekin?

ELKARGUNETZA ETA PRIBILEGIOAK

Honako termino hauen definizioa partekatuko da: elkargunetza, pribilegioak eta zapalkuntzak. Kontzeptu horiek funtsezkoak dira soziologian, teoria kritikoan nahiz justizia sozialari buruzko azterlanetan, eta gizartean bertan boterearen zein desberdintasunaren inguruan dauden dinamikekin dute zerikusia.

1989an, Kimberlé Crenshawek elkargunetzaren kontzeptua erabili zuen, arraza/etniaren, generoaren eta gizarte-mailaren arteko elkarreragina nolakoa den eta emakume beltzen ibilbideak osatzen dituzten dimentsio eta zapalkuntza ugariak nola sortzen diren azaltzeko. Emakume horiek jasan behar zituzten esperientzien berri eman nahi zuen, ez zeudelako zedarrituta arraza-bereizkeriaren eta generoaren marjina tradizionalen

bidez. Crenshawen esanetan, arrazakeria/etniaren, gizarte-mailaren eta generoaren elkargunetzak emakume beltzen bizitzetan eduki zuen eta eduki badaukan eragina ezin da ulertu, era bateko eta besteko zapalkuntzak banatuta begiratzen badira eta elkarri eranstean ez bazaizkio.

Elkargunetzaren ideiak egiaztatu egin zuen emakume beltzek jasaten dituzten indarkeriak ez zeudela zedarrituta ukitzen ez diren lerro paraleloak izango balira bezala. Kontzeptu horrek ikuspegia osatu eta konplexu egin zuen. Esperientzietan nahiz bizipenetan eta nortasunen zein bizi-baldintza zehatzen eraketan oinarritutako ikuskera zen, alegia.

Bestetik, berriazko gizarte-mailako edo arrazako kategoria sozial batekoa izateagatik baino ez pertsona edo talde batek dauzkan abantaila, onura edo eskubide bereziak dira pribilegioak. Abantaila horiek, ordea, ez dira ezinbestean eskuratzen norberaren merezimenduengatik, historian zehar botereko eta menderakuntzako postuetan egon diren talde sozial zehatz batzuetakoak izateagatik baino ez direlako lortzen.

Zapalkuntzak berriazko kategoria sozialekoak izateagatik gizabanakoek edo taldeek jasaten dituzten desabantailaekin, bazterkeriarekin eta tratu bidegabearekin dauka zerikusia. Desabantaila horiek, ordea, ez dira bananako ekintzen emaitza, desberdintasuna betikitzen duten egitura eta sistema sozialen emaitza baizik.

Laburbilduta, pribilegioek abantaila edo botere soziala ematen dute, baina zapalkuntzak desabantaila eta bazterkeria sistemikoen adierazgarri dira, ordea. Bi kontzeptuak elkarmenpekoak dira, eta aldi berean agertzen dira sistema sozialean, bertan batzuen pribilegioak beste batzuen zapalkuntzan oinarritzen direla kontuan hartuta. Teoriak

dimentsio horiek banatu ditzakeen arren, egia da elkarren artean daudela lotuta eta elkarrekin doazela. Modu analitikoan banatu daitezke, baina gorputz-mailan eta arlo materialean, ordea, ezin dira benetan banatu.

Beraz, pentsatzeko tresna erabilgarriak dira, baina ez errealitateari zentzua ematekoak. Nolanahi ere, sistema bera banaketa horien bitartez dago abian, eta bidegabekeria zein desberdintasuna antolatzeke moduak erabateko zerikusia dauka euren artean elkarreraginean dauden banaketa sozialekin, gizarte-mailarekin eta arrazarekin.



2. DINAMIKA:

 **Iraupena:** 40 minutu.

 **Materialak:** txartel handiak edo post-ita, boligrafoak, markatzaileak eta bideoa erreproduzitzeko gailua.

FEMINISMOAK, BOTEREA ETA PRIBILEGIOAK

1. Botereari eta pribilegioei buruzko eztabaida irekiko da. Parte-hartzaileek euren esperientzietan antzematen dituzten antzekotasunak eta aldeak zein diren azalduko dute.

2. Parte-hartzaile bakoitzak txarteletan idatziko du zer

pribilegio antzeman dituen, eta zer unetan eta egoeratan erabili dituen adieraziko du.

TALDEETAN EGINDAKO LANA:

Parte-hartzaileak lau laguneko taldeetan antolatuko dira, eta zapalkuntza zein pribilegio zehatza aukeratuko dute, horri buruz hausnartzeko. Horretarako, honako hauxe hartu beharko dute kontuan:

1. Egitura sustatzailea:

 *Kasuan kasuko zapalkuntza eta pribilegioa egiturazko zer faktorek sustatzen dituzten aztertzea.*

 *Zapalkuntza betikotzen duten baldintzei buruz hausnartzea (sozialak, egiturazkoak, sistema).*

 *Pribilegioak eurak zein diren zehaztea eta nola-ko eragina eta boterea dituzten ebaluatzea.*

2. Nork bere pribilegioen inguruan duen kontzientzia:

* Pribilegioen inguruko iritzian eragina duten aurreiritziei, estereotipoei eta gizarteratze-prozesuari buruz hausnartzea.

* Nork bere buruari haxe galdetzea: badakizu zein diren zure pribilegioak? Nola eta zer tuingurutan darabiltzazu?

3. Osoko bilkuran:

* Taldean eta banan-banan egin daitekeenari buruz hausnartzea, pribilegioak beste pertsona edo kausa sozial batzuen onurarako erabiltzeko.

* Zapalkuntzei dagokienez, talde-mailan nola antolatu daitezkeen eztabaidatzea, kontzientzia sortzeko, eragina edukitzeko eta aldaketak bultzatzeko.

LAN PERTSONALA EDO KOLEKTIBOA

* Banakako edo taldeko konpromisoan pentsatzea, antzemandako botere-egitura aldatzeko.

* Nola lan egin daitekeen hausnartzea, taldeak herri, auzo edo erkidego mailan lan egiten duen arloan eraldaketak egin ahal izateko.

ARRAZAKERIAREN AURKAKO FEMINISMOA ETA ELKARGUNETZA

Arrazakeriaren aurkako eta elkargunetzako feminismoa nola eratu daitekeen hausnartzeko, Tatiana Romero aktibista eta idazlea gonbidatu dugu. Bideo honetan, Tatianak feminismoaren historian zehar egindako ibilbidea eskainiko digu, Sojourner Truthetik hasi eta feminismoaren laugarren olatura iritsi arte. Horrez gain, behar besteko giltzarriak eskainiko dizkigu, etorkizun feminista elkarrekin eratzen nola jarraitu behar dugun jakiteko.



<https://www.youtube.com/watch?v=XVU7u9Vk4bw>

EZTABAIDA SORTZEKO GALDERAK:

Nola jarraitu dezakegu elkargunetza kontuan hartzen duten eremu feministak elkarrekin eratzen?

Arrazakeriaren aurkako politikak nola sustatu dezakete mugimendu feminista eta alderantziz?

Zein dira erronka nagusiak, benetan inklusiboa eta arrazakeriaren aurkako den mugimendu feminista eratzeko?

Nola irudikatu etorkizun feminista?

PATRIARKATUAREN AURKAKO FEMINISMO KOMUNITARIOA

Feminismo komunitarioak begirada deszentralizatzea eta honako hauek erdigunean jartzea proposatzen du: emakumeak, neskatilak, mutikoak, natura bera eta erkidego anitz osoa, hau da, transak, ez-binarioak eta gizonak barne. Feminismoa eta bere jarduketak deskolonizatu nahi ditu lurraldeetatik, Boliviako emakume indigenen, nekazarien eta hiritarren borroka-esperientzietan oinarrituta. Horrez gain, herrietako arbasoen historia berreskuratzea eta azterketarako nahiz jarduketarako esparru eurozentrikoak bertan behera uztea proposatzen du.



<https://www.youtube.com/watch?v=YOugSPEDhB0>

EZTABAIDARAKO GALDEREN PROPOSAMENA

Feminismo komunitarioaren zer ekarpen izan litezke garrantzitsuak zuon talde edo erakundearentzat?

Adriana Guzmánek bideoan azpimarratzen duenez, feminismo komunitarioaren ikuspegietako bat hezkuntza da, baita lurraldeetako aniztasun kultural zein sozialaren errespetua ere. Talde feministek nola integratu litzakete ikuspegi horiek mugimendu feministako ekintzen barruan, auzo nahiz herrietan eraginerako eta sentsibilizaziorako egiten duten lanean bertan?

4. ATALA

ELKARREN ARTEKO ZAINKETA ETA KOLEKTIBOA

SARRERA

Elkarren arteko zainketa funtsezkoa da eremu kolektiboetan. Helburu politiko edo sozialei ez ezik, taldeko kideen ongizate integralari ere eman behar zaio lehentasuna. Horren ondorioz, konpromisoa dago pertsona bakoitzaren zainketa emozional eta fisikoarekin, eta, horrela, enpatia, banakako erritmoen errespetua eta elkarren arteko laguntzarako dinamiken etengabeko arreta sustatzen dira.

Taldeek euren premia kolektibo, sozial eta politikoak betetzen dituzte, besteak beste, aldaketa sozialak, baieztapena eta eskubideen erabilera sustatzen dituzten helburu eta xedeen bitartez. Helburu kolektibo horiek taldearen integrazioa eta jasangarritasuna bultzatzen dituzte. Nolanahi ere, funtsezkoa da adieraztea premia pertsonalak ere betetzen dituztela, askotan inkontzienteak badira ere, beti-beti hortxe daudelako eta zenbait unetan azaleratzen direlako. Nahitaezkoa da premia horiek zein diren jakitea eta banakako nahiz taldeko erantzukizuna onartzea, erakundearen tentsioetan, harremanetan eta konplexutasunetan dutelako eragina. Garrantzitsua da jakitea premia pertsonal horiek ez direla taldean bakarrik egon behar; esate baterako, erabilgarri eta kide sentitzea eta entzun, ikusi, ezagutu edo onartu egiten zaituztela sentitzea.



1. DINAMIKA

BIZITZA ERDIGUNEAN: KONTZEPTUETATIK PRAKTIKARA



Tiempo de duración: ordubete.



Materialak: formatu handian inprimatutako kontzeptuak, papergrafoa eta markatzaileak.

Euskal Herriko Mugimendu Feminista Autonomoak Covid-19aren ondorioz sortutako pandemiaz geroztik adierazi zuen zainketen krisia bizi dugula. 2022. urtean, grebarako deialdia egin zuen, zainduak izateko eskubide kolektiboa aldarrikatzeko, zainketen sistema publikoa defendatzeko eta honako esaldi ezagun honi edukia emateko: “bizitza jarri dezagun erdigunean”. Beraz, gelditutako eta, batez ere, emakumeek eutsitako sistemaren josturak geratu ziren agerian. Hori dela eta, ustezko beste etorkizun eta antolakuntza-modu batzuk berriro zehazten saiatu ondoren, lehenengo Greba Orokor Feministarako deialdia egin zen Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako Foru Erkidegoan. Deialdia antolatzeke egindako batzarretan, topaketetan eta bileretan, zainketen sistema feminista publiko komunitarioa eratzeke helburua zehaztu zen. Auzo eta udalerrietako giza taldeek ideiak trukatu zituzten, zainketen sistema globalari (tokian-tokian nahiz autonomia-erkidegoan) irtenbidea nola eman ahal izango litzaiokeen aztertzeke, udalerrietatik eta auzoetatik bertatik hasita.

Giza talde batzuk euren elkarrizketak eta eztabaidaguneak egiten hasi ziren grebaren antolakuntzaren babespean, eta, greba egindakoan, jarraipena zein erantzuna eman behar izan zizkieten egin zituzten diagnostiko bateratuei. Beste giza talde batzuek, ordea, denbora gehiago behar izan zuten greban jorratutako gaiak sakon aztertzeke,

zainketen sisteman hainbat eratako errealitateak daudela kontuan hartuta.

Horregatik, lehenengo dinamika honetan, zainketarekin nahiz zainketa-sistemarekin lotutako funtsezko kontzeptuetara hurbiltzea, azaltzea eta eztabaidatzea izango da helburua, baita giza talde bakoitzaren errealitatera egokitzea ere.

METODOLOGIA:

Parte-hartzaileei paperetan idatzitako kontzeptuak zein definizioak ozen irakurtzea eta lekurtzen saiatzea proposatuko zaie, nolabaiteko eskema sortu ahal izateke. Goian, haientzat orokorrakoak diren kontzeptuak kokatu beharko dituzte; eta, behean, haientzat berariazkoagoak direnak. Horrez gain, geziak emango zaizkie (edo marraztu egin ahal izango dira, arbelik edo paper jarraiturik edukiz gero), kontzeptuak lotu ditzaten eta, horrela, errealitate batzuk beste batzuen sorburuak edota ondorioa direla adierazi dezaten.

Hurrengo kontzeptuak lantzea eta parte-hartzaileei gehiago eransteko eta azaltzeko aukera ematea ere proposatzen da:

Patriarkatua: sexu-genero arloko antolakuntzarako eta menderakuntzarako egitura da. Bertan, gizonen agintaritzak zein boterea dira nagusi, baita gizontasuna bera ere. Emakumeei, ordea, askatasunak, eskubideak eta botere ekonomiko, sozial edo politikoa kentzen dizkiete bertan.

Kapitalismoa: ekoizpen-bideen jabetza pribatuan eta merkatuaren askatasunean oinarritutako sistema ekonomikoa da.

Kolonialismoa: atzerriko nazio batek lurralde bat menderatzeko eta usiatzeko garatutako sistema ekonomiko eta politikoa da.

Kapitala-bizia gatazka: kapitalismoaren eskariei, metaketak eta ustiapenak, esaterako, ez dituzte errespetatzen eta ez dituzte kontuan hartzen giza biziaren nahiz planetaren ziklo eta premia naturalak (haurrak, nerabeak, helduaroa, zahartzaroa; aniztasuna, mugimendua, migrazioa; sormena, garrantzia). Hori dela eta, gatazkapean daude, eta kapitalaren helburuei pribilegioak ematen eta biziaren helburuak albo batera uzten saiatzen dira.

Elkarmenpetasuna: giza harremanen ezaugarria da. Bizitzaren hasieran ez ezik bizi-ziklo osoan jasaten dugun zaurgarritasunagatik, gizakiok beste gizaki batzuen premia daukagu (lotuneak, babesa, ondasun materialen lorpena, maitasuna, aitortza...). Hartara, subjektu herritarrek eraldatu egiten dute, eta kokaleku daukaten erkidegoak eraldatu egiten ditu.

Ekomenpetasuna: gizakien eta naturaren arteko harreman-modua da. Izan ere, gizakiok natura bera behar dugu bizitzeko, eta, aldi berean, bertako muga zein baldintzen eraginpean gaude. Era berean, natura zaintzeko erantzukizuna dugu menpetasun horrengatik, hain zuzen ere.

Zainketak: zainketak aipatzean, honako hauxe daukagu hizpide: biziari eustean ezinbestekoak diren jarduerak eta arlo fisiko, emozional nahiz soziopolitikoko jasangarritasun soziala; esate baterako, arreta ematea, entzutea, etxeko aurrekontua kudeatzea, laguntasuna ematea, irakastea, gaixoei edo mendekoei laguntzea, heriotzan laguntasuna ematea, erditzea, seme-alabak haztea, elikatzea, janaria prestatzea, garbitzea, jostea, sendatzea, birziklatzea, berrerrabiltzea, zainketa kolektiboaren sareak sortzea, manifestaldietara joatea edo giza eskubideen eta planetaren

babesa hobetzeko jardueretan parte hartzea...

Zainketen zorra: zainketak jaso baina ematen ez dituztenek zor hori sorrarazten dute. Sistema kapitalista eta patriarkalean, gizonak zainketen arloko zorra daukate emakumeekin, baina, batez ere, emakume txiroekin, ordainsari ekonomikorik eta balorazio sozialik gabe edo modu ezegonkorrean egin duten eta egiten duten lanagatik.

Lanaren banaketa sexuala: gizarteek lana gizonen eta emakumeen artean banatzen duten modua da, sexu bakoitzarentzat egokitutako jotzen diren eta ezarritako dauden genero-zereginen arabera.

Zainketen krisia: zainketen krisia aipatzean, honako hauxe dugu hizpide: bizitzari, hau da, bizitzeko moduko bizitza duinari eusten dion esparrua bigarren mailakoa izatea gure sistema sozioekonomikoan, gutxiengodun boteretsuaren moduan ekonomikoari ematen diolako lehentasuna eta, horren ondorioz, bizia zein natura bera gelditu egiten direlako.

AURREKO KONTZEPTUEI BURUZ EZTABAIDATZEKO GALDERAK:

Zuon ustez, zer kontzeptu iristen dira errealitate zabalagoetara? Zuon iritziz, zer dira errealitate horien ondorioak? Zuontzat harrigarria izan da definizioen bat? Kontzeptu horiek jorratu dituzue giza taldean?

Zuon ustez, zer ekintza/jarduketak eraldatu lezakete zainketen krisiaren gaur egungo errealitatea? Zuon iritziz, zer zeregin izan dezake zuon giza taldeak horri dagokionez? Zer aldaketa egin zenitzakete giza taldean bertan? Zer aldaketa eskatu ahal zenizkiekete zuon instituzio hurbilenei? Norekin lan egin zenezakete sarean, zuon udalerrri/auzoan elkarren arte-

ko zainketa hobetzeko? Zainketei buruzko hitzarmen sozialik dago zuon udalerri/hirian? Zuon iritziz, zer eskaera kontuan hartu beharko lirateke, hitzarmen sozialik balego?



2. DINAMIKA

NORBERAREN ZAINKETA ETA ZAINKETA ANTOLATUTAKO GIZA TALDEETAN



Iraupena: 45 minutu.



Materialak: bozgorailua, txartelak edo post-ita, markatzaileak eta paperografoak.

GIZA TALDEETAN PREMIA PERTSONALAK BETETZEKO PROZESUARI BURUZ HAUSNARTZEA

Banakako ariketa: bisualizazioa entzuteko tresna moduan erabiltzea da; arnasa, zuon barruko ahotsarekin eta barruko jakintzarekin bat egiteko elementu moduan; eta gorputza, adierazle moduan. Honako galdera hauek proposatzen dira:

Zer premia betetzen dizkit kide naukan giza taldeak? Zer emozio sorrazten dizkit giza taldeak?

Zerk gogobetetzen nau talde honetan?

Maila pertsonalean, zer premia betetzen ditut talde honetan parte hartzean?

Taldean nagoenean, zer sentitzen dut? Nola sentitzen naiz? Sentipen hori aztertu eta neure buruari haxe galdetuko diot berriro: zer emozio elikatzen dizkit taldeak?

Ibilbide guztia eta sortu diren erantzunak hartuko dira kontuan, eta, ondoren, paperezko orri batean idatziko dira. Introspektiborako unea amaitutakoan, premiarik antzeman duten galdetuko zaie taldekideei.

Premiak antzeman dituztenek premia horiek beste iturri batzuetan betetzen dituzten ala ez adierazi ahal izango dute, eta antzeman ez dituztenek, ordea, taldeak inolako premiarik betetzen ez duela zergatik uste duten azaldu beharko dute. Amaitutakoan, euren hausnarketak partekatuko dituzte.

ZAINKETA KOLEKTIBORAKO JARRAIBIDEAK ZEHATZEA

Ideia-jasa sustatzeko galderak:

1. Guretzat zer da zainketa kolektiboa, giza talde/era-kundeetan ezartzeko orduan?
2. Zainketa kolektiboa mugatzen duten zer zailtasun/arazo dauzkate edo izan dituzte taldeetan? Nolakoa gaiek sorrarazi dituzte zailtasunak egituraketari eta zainketa kolektiboari begira?

3. *Zer tresna ditugu eskuragarri, desberdintasunean eta zainketa kolektiboan oinarritutako elkarrizketak edukitzeko?*

4. *Zer behar dugu zainketa kolektiboan, aniztasunean eta zapalkuntzen, baldintzen nahiz egoeren inbrikazioan oinarritutako harremanak eratzeko?*

Galderak sistematizatzeko, galderen 4 paperografo edo kartoi mehe jarriko ditugu horman, eta parte-hartzaileek kolore desberdinetako 4na txartel handi jasoko dituzte, galdera bakoitzari erantzuteko. Paperografo bakoitzean, erantzunak koloreen arabera sistematizatzeari izango da asmoa.

Galderak amaitutakoan, erantzunen berrikuspen azkarra egingo dugu. Horretarako, erantzun guztiak irakurriko ditugu. Eranskailuak erabiliko dituzte, galdera-talde bakoitzean jartzeko eta, kasuan kasuko eztabaidea izan dadin, garrantzitsuena zein den lehenesteko.

1. *Zein da zailtasun ohikoena?*

2. *Zein da ondoen darabilgun tresna?*

3. *Zein da lehendabizi kontuan hartu beharreko premia, premia-koena, beharrezkoena eta garrantzitsuena?*

Lehenespen hori amaitzean, behar besteko eremua eratuko da, bete beharreko premiei buruz hausnartzeko eta elkarrizketak eratzeko, aniztasuna eta zapalkuntzen, baldintzen nahiz egoeren inbrikazioa kontuan hartuta.



3. DINAMIKA

ZAINKETAK ETA ZAHARTZAROA

Talde parte-hartzaile batzuek adierazi zutenez, batera hausnartu nahi izango lukete zainketei eta zahartzaroari buruz, taldekide gehienak adin heldukoak dira-eta.

Parte-hartzaile gehienek bizi-ibilbideak kontuan hartuta, zahartzaroari eta zainketekin duen lotunari buruzko ideiak trukatzeko asmoz, zainketen ibilbidea banan-banan marraztea iradoki zitzaizkien. Ibilbide horretan, euren bizitzako zer une/etapatan jaso edota eman dituzten zainketak azalduko lukete, euren ibilbideen laburpen grafikoa edukitzeko eta "zainketen zorraren" kontzeptua modu praktikoan lantzeko.

Ostean, ibilbide kolektiboa marrazteko eskatuko zaie parte-hartzaileei, parte-hartzaileen ibilbideak jakitera emateko eta laburbiltzeko. Hori marraztutakoan, etorkizuneko ibilbidea marrazteko eskatuko zaie, eta, horretarako, honako galdera hauei erantzungo diete:

Zuon ustez, nola bilakatuko da zuon ibilbide kolektiboa hurrengo urteetan? Bat dator nahi izango zenuketenarekin? (bi aukerak marraztu ahal izango dituzte kolore desberdinen bitartez).

Azkenik, elkarrizketarako eremua irekiko da, etorkizuneko ibilbidean haientzat zer elementu izan daitezkeen kezkarriak, zein izango diren egokiak... partekatzeko asmoz.

EZTABAIDARAKO MATERIAL LAGUNGARRIA:



Bizimodu onaren filosofiaren oinarriak, Boliviako Nazio Anitzeko Estatuko Kanpo Harremanetako Ministerioa:

<https://cancilleria.gob.bo/mre/filosofia/#:~:text=Vivir%20Bien%20o%20Buen%20Vivir,con%20toda%20forma%20de%20existencia.>



Anna Freixasen "Yo, vieja": liburuen aurkezpena, Gasteizko Udala:

<https://www.youtube.com/watch?v=QwRMZtVAvso> (5:40-18:16 minutu)



Etxebizitza kooperatiboa, Sostre Cívico:

<https://sostrecivico.coop/es/com-funciona-model-cessio-us/>



Koobizitza Sarearen oinarriak, Erabiltzeko Lagatako Etxebizitza Kooperatiben Sarea:

<https://www.koobizitza.org/bases-de-la-red-koobizitza/>



"Zaintzen sistema publiko komunitario feministarantz" dosierra, Denon Bizitzak Erdigunean:

<https://denonbizitzakerdigunean.eus/edukiak/> (5.-7., 22. eta 23. or.)

SAIOA HASTEKO ETA AMAITZEKO DINAMIKAK

LOTUNEEN AMARAUNA

Izotzaldia urtzea eta parte-hartzaileen arteko hasierako lotuneak sortzea du helburu.



Materialak: artilezko edo harizko harila, hiltuna eta musika.

Azalpena: parte-hartzaileak biribilean jarriko dira. Lehenengo pertsonak hariari eutsi, bere izena esan eta datu pertsonala edo jarduerari buruzko aurreikuspena partekatuko du. Gero, harila botako dio beste bati, baina hariaren muturrari oratuko dio. Hurrengoak bere burua aurkeztuko du, beste datu edo aurreikuspen bat partekatuko du eta beste bati botako dio harila. Horrela, taldea begiz lotzen duen harizko “amarauna” eratuko da. Azkenean, orain bere historien bitartez nola dauden lotuta eduki ahal izango dute hausnargai.

NORTASUNEN BINGOA

Helburua: beste batzuk ezagutzea eta antzekotasunak aurkitzea.

Materialak: ezaugarri edo esperientzia desberdinak dituzten bingoko txantiloia (esate baterako, “kafea du gustuko”, “beste herrialde batera bidaiatu du”, “maskota dauka”...).

Azalpena: parte-hartzaileek ezaugarri edo jardura desberdinak dituen “bingoko” orri bana jasoko dute, eta beste norbait bat etorri liteke horiekin. 5-10 minututan, parte-hartzaileak hara-hona mugituko dira, eta beste batzuei galdetuko diete haien orriko ezaugarriren bat betetzen duten. Bat datorren norbait aurkitzen dutenean, kasuan kasuko laukian sinatu beharko du. Lerroa edo orria osorik osatzen duen lehenengoa

izango da irabazlea. Galderak taldearen arabera pertsonalizatu ahal izango dira, gai interesgarriak, gustuko gaiak eta esperientziak kontuan hartu ahal izateko.

RUEDA DE PRESENTACIONES

Helburua: aurkezpen laburra sustatzea parte-hartzaile guztien artean

Azalpena: parte-hartzaile guztiak biribilean jarriko dira. Nork bere burua aurkeztuko du, eta, horretarako, haien izena esango dute, baita une horretan sentitzen dutenaren adierazgarri den hitz bat edo berarekin bat datorren zerbait ere (esate baterako, “Ana naiz, eta naturarekin bat nator”). Bere burua aurkezten duenak, gainera, aurrekoen aurkezpena errepikatu beharko du, izenen eta partekatutako xehetasunen oroimena indartzeko.

TALDEAREN HITZARMENAK

Taldeakako prozesuen hasieran, erabilgarria izan daiteke errespetuzko giro segurua bultzatzen duten hitzarmenak ezartzea. Hitzarmen horiek prozesuan zehar eguneratu eta taldekide berri bat dagoen bakoitzean berrikusi ahal izango dira.

Hitzarmen kolektiboek hasiera-hasieratik konfiantzako eta errespetuko eremua sortzea izango dute helburu, baita saio bakoitzaren amaieran baterako hausnarketa sustatzea ere. Hitzarmen horiek ezartzeko, txanda bati eman ahal izango zaio hasiera, norberak eremuan bertan eroso eta errespetatuta sentitzeko zer behar duen azaldu dezan.

PARTEKATUTAKO ZAINKETEN MAPA

Dinamika hau oso erabilgarria izango da oraindik elkar ezagutzen ez duten kideak dauzkaten taldeetan, babeserako eta enpatiarako giroa suspertzen duelako. Post-itak banatu eta parte-hartzaileei eskatuko zaie saioan bertan babesa sentitzeko zer behar duen idatzi dezatela (esate baterako, hitz egiteko txanden errespetua, judiziorik gabeko giroa edo erretiratzeko aukera, beharrezkoa izanez gero). Gero, arbelean edo horman jarriko dira post-itak, taldeko bertako elkarbizitza eta errespetua bideratuko dituen “zainketen mapa” sortzeko.

ESKERRAK EMATEKO ETA HAUSNARTZEKO ZIRKULUA

Helburua: parte-hartzaileen denbora, ekarpenak eta zaurgarritasun partekatua aitortzea.

Azalpena: biribilean, parte-hartzaile bakoitzak eskerrak eman edo saio-tik daraman ikasbidea partekatuko du. Une horretan, banakako eta taldeko ahalegina baloratzea izango da helburua. Agerraldia laburra izan ahalko da; hitz edo esaldi adierazgarri bat baino ez, esaterako.

Kandelak edo argiaren sinboloak erabili ahal izango dira esker on bakoitzaren asmoaren erakusgarri, edo objektu esanguratsuren bat ekartzeko eskatu ahal izango zaie parte-hartzaileei. Hori oso lagungarria izango da taldean dauden lotunea eta kidetza indartzen dituen eremu kolektiboa sortzeko orduan.

ONDORIOAK

INDARTZEKO PROZESUAREN EMAITZAK ETA LORPENAK

Prozesuan parte hartu zuten emakumeen esanetan, lorpen nabarienetako bat behar besteko eremuak sortzea izan zen, bertan gaur egungo gaiei buruz eztabaidatu eta gaiok agerian jarri ahal izan dituztelako, lehen konfiantzako giro lasaian arakatzerik ez zeukaten ikuspegiak kontuan hartuta. Ondo ikusi zen elkargunetza, botere-dinamikak, gatazkak eta arrazakeriaren aurkako jarrera jorratu izana, besteak beste.

Batetik, lan-metodologiei dagokienez, haientzat egokiak izan ziren dinamizaziorako proposamenak, eta eskertu egin zuten eztabaidak sistematizatu izana. Nabarmendu egin zutenez, gaiak eta lan-proposamenak etengabe malgutu eta egokitu direnez, atxikimendu handiagoa izan dute prozesuarekin. Bestetik, sortutako eremuei dagokienez, eremu mistoetan lan egiteko proposamenaren balioa azpimarratu zuten, taldeen aniztasunak eztabaidak aberastu dituelako eta zenbait faktoreri buruzko ikuspegiak eskaini dituelako; esate baterako, arrazializazioa, migrazioa, Atzeritarrei buruzko Legea eta etxeko nahiz zainketetako lana. Era berean, argi eta garbi esan zutenez, prozesuan bertan, taldeko bertako konfiantza areagotu da, parte-hartzaileek sakonago ezagutu dutelako elkar eta gehiago dakitelako testuinguruei nahiz gainerakoen banakako prozesuei buruz.

Jabekuntza lortzeko eta indartzeko prozesuaren ondorioz, feminismoko funtsezko eztabaidak egiten hastea eta tailerretan eztabaida horietan sakontzea lortu da. Prozesuaren formatuari esker, erakunde edo giza talde bakoitzak ekintza zehatzak jarri ditu abian barruko nahiz kanpoko arloetan, eztabaidei eutsi die berriro eta aurrerapenak, zalantzak zein hausnarketak partekatu ditu topaketa guztietan. Horren ondorioz, atzerelikadurarako eta eraketa kolektiborako eremua sortu da giza talde

eta erakunde parte-hartzaileen artean.

SAKONTZEN JARRAITZEKO ETORKIZUNEKO USTEZKO LAN-LERROAK

ELKARGUNETZAKO ALIANTZAK INDARTZEA

Feminismoaren eta justizia sozialaren arloan helburu berberak dituzten beste giza talde sozial batzuekin, arrazakeriaren aurkakoekin eta LGBTQ+ pertsonekin sareak sortzea. Lankidetzaren bitartez, bada-gogiz giza taldeek eraginerako duten gaitasuna handituz eta haien ikuspegiak borroka feministaren ikuspuntu zabalagoaren bidez aberasterik.

ETXEKO LANAREN ETA ZAINKETEN ARLOKO ERREALITATE SOZIALA AGERIAN JARTZEA

Ekintzak sustatzen jarraitzea, etxeko eta zainketetako lana aitortzeko eta baloratzeko. Horretarako, politika publikoan eragina edukitzea eta sensibilizaziorako kanpainak sortzea, arlo sozial eta politikoan funtsezko lan horiei balioa emateko. Hori dela eta, soldaten baldintzak hobetzea eta emakume profesionalak oinarritzko zutabe moduan duintzea euskal gizartearen ongizaterako.

ANTIARRAZAKERIARI ETA ELKARGUNETZARI BURUZ HAUSNARTZEKO EREMUAK

Euskal Herriko errealitate sozialari, migrazio-politikei eta migratzaileen artean daukaten eraginari buruz hitz egiteko eremu seguruak sustatzea, eskubide sozialen lorpenari eta ongizate orokorrari dagokienez. Horrez gain, giza talde feminista moduan, geure giza taldeetan, auzoetan eta arlo politikoan eragina edukitzeko bideak miatzea.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA ANITZAK AZTERTZEKO EREMUAK

Era bateko eta besteko indarkeriei buruzko eta emakumeak zeharkatzen dituzten moduei buruzko antzeko eremuetan modu kolektiboan sakontzea, haien ondorioz ez direlako behar bezala garatzen administrazioe-kiko harreman hurbil bezain irisgarriak, arlo publikoko partaidetza eta ibilbide profesionalak.

EMAKUME GAZTEEN PARTAIDETZA HANDITzea ETA BELAUNALDIAK DIBERTSIFIKATzea

Emakume gazteak militantzian inplikatzeko, mugimenduaren aniztasuna, berriztapena eta jasangarritasuna ziurtatzeko.

AZKEN HITZAK

Prestatzeko eta indartzeko prozesuaren ondorioz, ekarpen esanguratsuak sortu direnez, behar besteko eremuak eskaini dira, hausnarketa kritikoa egiteko, esperientziak trukatzeko eta gai garrantzitsuak jorratzeko, parte-hartzaileek eurek adierazi duten bezala. Giza talde parte-hartzaile batzuek babeserako eta lankidetzarako dituzten sareak handitu dituztenez, antolakuntzarako eta lidergo partekaturako gaitasunak indartu dituzte.

Herri-hezkuntza feministan eta taldeen bidelaguntzan oinarritutako eta ezarritako metodologiak eraginkorrak izan dira partaidetzarako eremu horizontalak eratzeke orduan, botere-egitura tradizionalen erroka botatzen dien ikaskuntza kolektiboa sustatu dutelako. Horrez gain, ikuspegi horri esker, erakunde bakoitzak jakintza horiek barruko nahiz kanpoko

eremuetan ezarri dituzenez, atzeraketa aberasgarria sortu da etengabe.

Prozesu horrek indartu egin du zeinen garrantzitsua den sarean lan egiten jarraitzea eta emakumeek jasaten dituzten era guztietako zapalkuntzen zein indarkerien inguruko hezkuntza nahiz kontzientziazioa bultzatzen jarraitzea. Aldi berean, zainketa kolektiborako jarduketak jasagarriak ezartzeko premia sustatu du, funtsezkoak direlako giza talde feminista moduan garatzen dituzten jarduketak jasangarritasunari eta ongizateari begira.

Laburbilduta, sortutako eremuen nahiz eztabaiden aurrerakuntza esanguratsua izan da, eta bat dator giza talde parte-hartzaileek gizarte bizitzekoagoa eta inklusiboagoa lortzeko orduan dituzten postulatuekin. Gainera, eraginerako eta gizartearen eraldaketarako etorkizuneko ekintzak abian jartzeko oinarriak ere finkatzen dituzte.